## ERANSKINA.–193 EREDUAREN AURKEZPEN ELEKTRONIKORAKO SORTZEN DIREN FITXATEGIEK BETE BEHARREKO DISEINU LOGIKOAK

*Erregistroen azalpena.*

Aitortzaile bakoitzarentzat bi erregistro mota izanen dira, lehen idazgunearen arabera bereizten direnak, irizpide hauen arabera:

1. mota: Aitortzailearen erregistroa: Identifikazio datuak eta aitorpenaren laburpena. 1. motako erregistroaren diseinua, atal hauetan beretan eta foru agindu honen eranskinean ageri direnetatik.

2. mota: hartzailearen erregistroa. 2. motako erregistroaren diseinua, atal hauetan beretan eta foru agindu honen eranskinean ageri direnetatik.

Aurkezteko hurrenkera erregistro motarena izanen da. 1. motako erregistro bakar bat egonen da, eta 2. motakoen kasuan, aitorpenak zenbat hartzaile dituen, hainbat erregistro izanen dira.

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerretara lerrokaturik eta eskuinetara zuriunez beterik aurkeztuko dira, letra larrietan, karaktere berezirik eta bokal azentudunik gabe.

Hizkuntzaren karaktere berezietarako, ISO-8859-1 kodifikazioa erabiliko da. Hala, “Ñ” letrak ASCII 209 (Hex.D1) balioa izanen du eta “Ç” letrak (c hautsi larria) ASCII 199 (Hex.C7) balioa.

Zenbakizko eremu guztiak eskuinaldera lerrokaturik eta ezkerraldean zeroz beterik agertuko dira, zeinurik gabe eta paketatu gabe.

Eremu guztiek izanen dute edukia, eremuaren azalpenean kontrakoa zehazten ez bada. Edukirik ez badute, zenbakizko eremuak zeroz beteko dira, eta alfanumerikoetan eta alfabetikoetan, berriz, zuriuneak utziko dira.

Aurkezpena multzoan egiten denean (aitortzaile bat baino gehiago fitxategi berean), euskarriaren lehen erregistro gisa zero motako erregistro bat aurkeztuko da, atal honetan jarraian azaltzen den zero motako erregistroaren diseinuari jarraikiz. Horretan sartuko dira aurkezpenaren erantzulea den pertsonaren edo entitatearen datuak, eta hala eginen da, nahiz eta pertsona edo entitate hori euskarrian aitortzaile moduan ere aurkeztu. Jarraian ipiniko dira lehen aitortzailearen datuak (1. motako erregistroa), eta, ondoren, hartzaileak (2. motakoa); gero, hurrengo aitortzailearen datuak eta, ondoren, hartzaileak; eta horrela hurrenez hurren.

Fitxategiko lehen erregistroak (0 motakoa, aitorpen kolektiboa egiten denean, edo 1 motakoa, banaka aurkezten denean) 13 karaktereko eremua izanen du, 488 idazgunearen eta 500.aren artean, zigilu elektronikoa jartzeko. Nafarroako Zerga Ogasunak ematen dituen programa ofizialen bidez bakarrik jarriko da zigilu hori. Bestelako edozein kasutan, zuriunez beteko da.

## 193 EREDUA

## A.–0 MOTAKO ERREGISTROA

*Aurkezpen kolektiboa*

<table>
<tr><th>IDAZGUNEAK</th><th>IZAERA</th><th colspan="2">EREMUEN DESKRIPZIOA</th></tr>
<tr><td>1</td><td>Zenbakizkoa</td><td colspan="2">ERREGISTRO MOTA. Konstantea: ‘0’ (zero).</td></tr>
<tr><td>2-4</td><td>Alfanumerikoa</td><td colspan="2">AURKEZTEKO EREDUA. Konstantea: ‘193’.</td></tr>
<tr><td>5-8</td><td>Zenbakizkoa</td><td colspan="2">EKITALDIA. Euskarrian sartutako aitorpenen zerga-ekitaldiari dagozkion lau zifrak.</td></tr>
<tr><td>9-17</td><td>Alfanumerikoa</td><td colspan="2">AURKEZLEAREN IFZa. Aurkezlearen IFZa jarriko da. Eremu hau eskuinaldera lerrokaturik egonen da, azken idazgunea kontrol karakterea izanen da, eta ezkerreko idazguneak zeroz beteko dira, honako hauetan aurreikusitako arauekin bat: uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretua (haren bidez onetsi zen Tributuak kudeatu eta ikuskatzeko eta tributuak aplikatzeko prozeduretarako arau komunak garatzeko jarduketa eta prozedurei buruzko Erregelamendu Orokorra) eta otsailaren 22ko 8/2010 Foru Dekretua (haren bidez ezarri ziren Identifikazio fiskaleko zenbakia eta hari lotutako zenbait zentsu arautzen dituen arauak).</td></tr>
<tr><td>18-57</td><td>Alfanumerikoa</td><td colspan="2">AURKEZLEAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETATE IZENA.<br>1. motako erregistroan aitortzailearentzat azaldutako irizpide berarekin beteko da.</td></tr>
<tr><td rowspan="7">58-109</td><td rowspan="7">Alfanumerikoa</td><td colspan="2">AURKEZLEAREN HELBIDEA. Eremu hau bederatzitan banatzen da:</td></tr>
<tr><td>58-59</td><td>SG: Bide publikoaren siglak.</td></tr>
<tr><td>60-79</td><td>BIDE PUBLIKOA: bide publikoaren izena. Alfabetikoa izan behar du, eta, beraz, izenean zenbakiak izanez gero, letraz jarriko dira (adibidez: maiatzaren 2a maiatzaren bia izanen da). Errepidea baldin bada, km laburdurarekin bukatuko da.</td></tr>
<tr><td>80-84</td><td>ZENBAKIA: Etxearen zenbakia edo kilometro puntua (zenbaki dezimalik gabe). Zenbakizkoa eta bost idazgunekoa izan behar du.</td></tr>
<tr><td>85-86</td><td>ESKAILERA.</td></tr>
<tr><td>87-88</td><td>SOLAIRUA.</td></tr>
<tr><td>89-90</td><td>ATEA.</td></tr>
</table>

| IDAZGUNEAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIPZIOA | |
|---|---|---|---|
| | | 91-95 | POSTA KODEA: Aurkezlearen helbideari dagokiona. Zenbakizkoa eta bost idazgunekoa izan behar du. |
| | | 96-107 | UDALERRIA: Hamabi idazgune hartzen ditu. Izenak hamabi karaktere baino gehiago baldin baditu, lehenengo hamabiak jarriko dira, artikulurik eta preposiziorik gabe. |
| | | 108-109 | PROBINTZIAREN KODEA: aitortuaren erregistroaren (2. mota) "Probintziaren kodea" eremurako erabilitako irizpide berari jarraikiz beteko da. Zenbakizkoa. |
| 110-114 | Zenbakizkoa | AITORTZAILEAK, GUZTIRA.<br>Zenbakizko eremua, 5 idazgunekoa. Euskarri kolektiboan sartutako pertsona edo entitate aitortzaile guztien kopurua adieraziko da. (Grabatutako 1. motako erregistroen kopurua). | |
| 115-123 | Zenbakizkoa | HARTZAILEAK, GUZTIRA.<br>Euskarrian heldu diren hartzaileen osoko kopurua (erregistroak) adieraziko da, alde batera utzita zein aitortzaileri dagokien. (Grabatutako 2. motako erregistroen kopurua). | |
| 124 | Alfabetikoa | EUSKARRI MOTA. Gako honekin beteko da: | |
| | | 'T': | Transmisio telematikoa. |
| 125-173 | Alfanumerikoa | HARREMANETARAKO PERTSONA. Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu hau bitan banatzen da: | |
| | | 125-133 | TELEFONOA: Zenbakizko eremua, 9 idazgunekoa. |
| | | 134-173 | IZEN-DEITURAK: 1. motako erregistroan aitortzailearentzat azaldutako irizpide berarekin beteko da. |
| 174-487 | | ZURIUNEZ BETETZEKOA. | |
| 488-500 | Alfanumerikoa | ZIGILU ELEKTRONIKOA. Aurkezpen kolektiboetako zigilu elektronikoa jartzeko eremua. Nafarroako Zerga Ogasunak ematen dituen programa ofizialek soilik beteko dute. Bestelako edozein kasutan, zuriunez beteko da. | |

–Edukirik ez duten zenbakizko eremuak zeroz beteko dira.

–Edukirik ez duten eremu alfanumerikoak eta eremu alfabetikoak zuriunez beteko dira.

–Zenbakizko eremu guztiak eskuinaldera lerrokaturik eta ezkerraldean zeroz beterik.

–Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldera lerrokaturik eta eskuinaldean zuriuneak dituztela, letra larriz, karaktere berezirik eta azentudun bokalik gabe, non eta eremuaren azalpenean besterik agintzen ez den.

## 193 EREDUA

## B.–1. MOTAKO ERREGISTROA

*Aitortzailearen erregistroa*

| IDAZGUNEAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIPZIOA |
|---|---|---|
| 1 | Zenbakizkoa | ERREGISTRO MOTA. Konstantea: '1'. |
| 2-4 | Zenbakizkoa | AITORPEN EREDUA.<br>Konstantea: '193'. |
| 5-8 | Zenbakizkoa | EKITALDIA.<br>Aitorpenaren zerga-ekitaldiari dagozkion lau zifrak. |
| 9-17 | Alfanumerikoa | AITORTZAILEAREN IFZ-A.<br>Aitortzailearen IFZa adieraziko da. Eremu hau eskuinetik lerrokaturik egonen da, azken idazgunea kontrol karakterea izanen da eta ezkerreko idazguneak zeroz beteko dira, Tributuak kudeatu eta ikuskatzeko eta tributuak aplikatzeko prozeduretarako arau komunak garatzeko jarduketa eta prozedurei buruzko Erregelamendu Orokorra onesten duen uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuan eta Identifikazio fiskaleko zenbakia eta hari lotutako zenbait zentsu arautzen dituen otsailaren 22ko 8/2010 Foru Dekretuan ezartzen diren arauei jarraituz. |
| 18-57 | Alfanumerikoa | AITORTZAILEAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETATE IZENA.<br>Pertsona fisikoa bada, hauek idatziko dira: lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izena osorik, nahitaez hurrenkera horretan.<br>Errentak eratxikitzeko araubidea duten entitateen kasuan, sozietatearen izena osorik jarriko da, anagramarik gabe.<br>Eremu honetan inola ere ez da izen komertzialik adieraziko. |

| IDAZGUNEAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIPZIOA | |
|---|---|---|---|
| 58 | Alfabetikoa | EUSKARRI MOTA. Gako honekin beteko da: | |
| | | ‘T’: | Transmisio telematikoa. |
| 59-107 | Alfanumerikoa | HARREMANETARAKO PERTSONA.<br>Harremanetarako pertsonaren datuak.<br>Eremu hau honela banatzen da: | |
| | | 59-67 | TELEFONOA: Zenbakizkoa, 9 idazgunekoa. |
| | | 68-107 | IZEN-DEITURAK: Lehenbiziko deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, hurrenkera horretan nahitaez. |
| 108-120 | Zenbakizkoa | AITORPENAREN FROGAGIRIAREN ZENBAKIA.<br>Aitorpenari dagokion frogagiriaren zenbakia jarriko da. Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa. | |
| 121-122 | Alfabetikoa | AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA. Aitorpen bat, salbuespenez, bigarren aldiz edo ondoren aurkezten bada, eremu hauetako bat bete beharko da nahitaez: | |
| | | 121: | AITORPEN OSAGARRIA. “C” bat adieraziko da, aitorpen hau aurkeztearen helburua baldin bada ekitaldi berean aurkezturiko beste aitorpen batean agertu behar zuten baina agertu ez ziren hartutakoak adieraztea. |
| | | 122: | ORDEZKO AITORPENA. “S” bat jarriko da baldin eta aurkezpenaren xedea zerga-ekitaldi bereko aurreko aitorpen bat ezabatu eta osorik ordeztea bada. Ordezko aitorpen batek aurreko aitorpen bakar bat baizik ez dezake baliogabetu. |
| 123-135 | Zenbakizkoa | AURREKO AITORPENAREN FROGAGIRIAREN ZENBAKIA.<br>“Aitorpen osagarria” eremuan “C” idatzi bada, edo “Ordezko aitorpena” eremuan “S” idatzi bada, ordezten edo osatzen duen aitorpenari dagokion identifikazio zenbakia idatziko da.<br>Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa.<br>Bestelako edozein kasutan, zeroz beteko da. | |
| 136-144 | Zenbakizkoa | HARTZAILEAK, GUZTIRA.<br>Aitortzaileari dagokion euskarrian ageri diren hartzaile guztien kopurua adierazi beharko da. Hartzaile bera erregistro batean baino gehiagotan agertzen bada, agertzen den adina aldiz kontatuko da (2. motako erregistroen kopurua). | |
| 145-159 | Zenbakizkoa | ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA.<br>Zenbakizko eremua, 15 idazgunekoa.<br>Hartzailearen erregistroetan “ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA” eremuan (152-164 idazguneak) adierazten diren diru kopuru guztien batura ikurrik eta koma dezimalik gabe adieraziko da.<br>Eremu hau bitan banatzen da: | |
| | | 145-157 | Osoko zatia: atxikipenen eta konturako sarreren oinarriaren zenbateko osoarena. |
| | | 158-159 | Zati dezimala, atxikipenen eta konturako sarreren oinarriaren zenbateko osoarena. |
| 160-174 | Zenbakizkoa | ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK.<br>Zenbakizko eremua, 15 idazgunekoa.<br>Hartzailearen erregistroetan “ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK” eremuan (169-181 idazguneak) adierazten diren diru kopuru guztien batura ikurrik eta koma dezimalik gabe idatziko da.<br>Eremu hau bitan banatzen da: | |
| | | 160-172 | Osoko zatia, atxikipenen eta konturako sarreren zenbateko osoarena. |
| | | 173-174 | Zati dezimala, atxikipenen eta konturako sarreren zenbateko osoarena. |
| 175-189 | Zenbakizkoa | SARTUTAKO ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK.<br>Zenbakizko eremua, 15 idazgunekoa.<br>Ikurrik eta koma dezimalik gabe adieraziko da hartzailearen erregistroetan “ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK” eremuan (169-181 idazguneak) adierazitako kopuruen guztirako batuketa, “HARTUTAKOAREN GAKOA” eremuan "C" letra adierazita duten hartzaileei (erregistroak) dagozkien kopuruena, eta, orobat, “HARTUTAKOAREN GAKOA” eremuan “A”, “B” edo “D” letrak adierazita dituztenak eta, aldi berean, “ORDAINKETA” eremuan “1” edo “3” balioa. | |
| 190-219 | ------------ | ZURIUNEAK | |
| 220-234 | Zenbakizkoa | GASTUAK, PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 32.1.a) artikulua (4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia).<br>Zenbakizko eremua, 15 idazgunekoa.<br>Ikurrik eta koma dezimalik gabe adieraziko da “GASTUEN ZENBATEKOA” eremuan (“Gastuen zerrendako” erregistroaren diseinuko 195-207 idazguneak) adierazten diren kopuruen batura.<br>Eremu hau bitan banatzen da: | |
| | | 220-232 | Osoko zatia: gastuen zenbateko osoa. |
| | | 233-234 | Gastuen zenbateko osoaren zati dezimala. |

| IDAZGUNEAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIPZIOA |
|---|---|---|
| 235 | Alfabetikoa | AITORTZAILEAREN IZAERA.<br>"S" jarriko da aitortzailea kategoria hauetako bakar batean ere sartuta ez dagoenean:<br>a) Espainian helbidea, egoitza edo ordezkaritza duen entitatetzat jotzen den aitortzailea, eredu honen xede den atxikipenari lotutako errentak besteren kontura ordaintzen baditu edo eredu honen xedeko kapital higigarriaren etekinak eta errentak sortzen dituzten baloreetako errenten kobrantzaren kudeatzailea edo gordailuzaina baldin bada.<br>b) Eredu honen xedeko kapital higigarriren etekinen eta errenten sorrarazle diren baloreen jaulkitzailetzat jotzen den aitortzailea, baldin eta errenta horiek besteren kontura ordaintzen badira edo titularren baloreen gordailua egina badute edo aurreko a) letran aipatutako entitateek errenten kobrantza kudeatzen badute.<br>c) Eredu honen xedeko kapital higigarriaren etekinak edo errentak ordaindu dituen aitortzailea, baldin eta likidazio maiztasuna hamabi hilabetetik gorakoa izateagatik 1999a baino lehenagoko ekitaldietan konturako sarrerak egin badira, eta urteko laburpenari dagokion ekitaldian behin betiko atxikipena eta erregularizazioa egin badira, abenduaren 30eko 371/1998 Foru Dekretuko xedapen iragankorraren 6. atalarekin bat.<br>d) Administrazio gastuen eta balore negoziagarrien gordailuaren kontzeptu gisa (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiaren, 32.1.a) artikuluan aipatua) kopuruak hartu dituen aitortzailea eta, beraz, eredu honetan gastu horien zerrendari buruz ageri den orri erantsia bete behar duena.<br>Aitortzailea aipatu diren kategoria horietako batean sartuta badago, eremu hori zuri utziko da.<br>Eremu honetan "S" jartzen bada, jarraian aipatzen diren eremuak honela beteko dira:<br>SARTUTAKO ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK (175-189 idazguneak): zeroak jarriko dira.<br>GASTUAK (220-234 idazguneak): zeroak jarriko dira.<br>Eremu honetan "S" jartzen bada, "S" jarriko da "AITORTZAILEAREN IZAERA" eremuan, 2. motako erregistro guztien 208 idazgunean (hartzailearen erregistroa), eremu horren azalpena kontuan harturik.<br>Eremu honetan "S" jartzen bada, aitorpenak ezin izanen du 2. motako erregistrorik eduki (gastuen erregistroa)." |
| 236-487 | ------------ | ZURIUNEAK |
| 488-500 | Alfanumerikoa | ZIGILU ELEKTRONIKOA.<br>Aurkezpen kolektiboetako zigilu elektronikoa jartzeko eremua. Nafarroako Zerga Ogasunak ematen dituen programa ofizialek soilik beteko dute. Bestelako edozein kasutan, zuriunez beteko da. |

–Zenbateko guztiak positiboak izanen dira.

–Edukirik ez duten zenbakizko eremuak zeroz beteko dira.

–Edukirik ez duten eremu alfanumerikoak eta eremu alfabetikoak zuriunez beteko dira.

–Zenbakizko eremu guztiak eskuinaldera lerrokaturik eta ezkerraldean zeroz beterik.

–Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldera lerrokaturik eta eskuinaldean zuriuneak dituztela, letra larriz, karaktere berezirik eta azentudun bokalik gabe, non eta eremuaren azalpenean besterik agintzen ez den.

## 193 EREDUA

## C.–2. MOTAKO ERREGISTROA

*Hartzailearen erregistroa. Hartzaileen zerrenda*

| IDAZGUNEAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIPZIOA |
|---|---|---|
| 1 | Zenbakizkoa | ERREGISTRO MOTA. Konstantea: '2'. |
| 2-4 | Alfanumerikoa | AITORPEN EREDUA. Konstantea: '193'. |
| 5-8 | Zenbakizkoa | EKITALDIA. 1. motako erregistroak idazgune hauexetan duen eduki berbera idatzi. |
| 9-17 | Alfanumerikoa | AITORTZAILEAREN IFZ-A. 1. motako erregistroak idazgune hauexetan duen eduki berbera idatzi. |
| 18-26 | Alfanumerikoa | HARTZAILEAREN IFZ-A.<br>Pertsona fisikoa bada, hartzailearen IFZa jarriko da, Tributuak kudeatu eta ikuskatzeko eta tributuak aplikatzeko prozeduretarako arau komunak garatzeko jarduketa eta prozedurei buruzko Erregelamendu Orokorra onesten duen uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuan eta Identifikazio fiskaleko zenbakia eta hari lotutako zenbait zentsu arautzen dituen otsailaren 22ko 8/2010 Foru Dekretuan ezartzen diren arauei jarraituz. |

| IDAZGUNEAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIPZIOA |
|---|---|---|
| | | Hartzailea pertsona juridikoa bada edo errentak eratxikitzeko araubidea duen entitate bat bada (ondasun-erkidegoa, sozietate zibila, jaraunspen jasogabea, etab.), haren identifikazio fiskaleko zenbakia adieraziko da.<br>Adingabe edo ezgaituen identifikazioan azalduko dira bai adingabearen edo ezgaituaren datuak, identifikazio fiskaleko zenbakia barne, bai legezko ordezkariaren datuak.<br>Eremu hau eskuinaldera lerrokaturik egonen da, eta azken idazgunea kontrol karakterea izanen da. Ezkerraldeko idazguneak zeroz beteko dira. |
| 27-35 | Alfanumerikoa | LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZa.<br>Hartzailea adingabea bada, eremu honetan haren legezko ordezkariaren identifikazio fiskaleko zenbakia (aita, ama edo tutorearena) adieraziko da.<br>Beste edozein kasutan zuriuneak utziko dira eremu honen edukian.<br>Eremu hau eskuinaldera lerrokaturik egonen da, eta azken idazgunea kontrol karakterea izanen da. Ezkerraldeko idazguneak zeroz beteko dira. |
| 36-75 | Alfabetikoa | HARTZAILEAREN DEITURAK ETA IZENA, SOZIETATE-IZENA EDO IZENDAPENA.<br>a) Pertsona fisikoa bada, aurrena lehen abizena, tarte bat, bigarren abizena, tarte bat eta izen osoa idatziko dira, hurrenkera horretantxe. Hartzailea adingabea bada, haren deiturak eta izena jasoko dira eremu honetan.<br>b) Pertsona juridikoen eta errentak eratxikitzeko araubidea duten entitateen kasuan, entitatearen sozietate izena edo izendapen osoa jarriko da, anagramarik gabe. |
| 76 | Alfanumerikoa | HARTZAILE BITARTEKARIA.<br>Hartutakoen "A", "B" edo "D" gakoentzat bakarrik.<br>Eremu honetan "X" bat jarriko da, bakar-bakarrik, aitortutako hartzailea Espainian helbidea, egoitza edo ordezkaritza duen entitate bat baldin bada, eta besteren kontura ordaintzen baditu atxikipena behar duten errentak, edo errenta edo etekina sortzen duten baloreetako errenten kobrantzaren kudeatzailea edo gordailuzaina baldin bada.<br>Eremu hau ez da bete beharko aurrean aipatu ez diren gainerako kasuetan, hau da, hartzaile aitortua pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari lotutako zergaduna bada edo sozietateen gaineko zergari lotutako zergaduna bada edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari (finka-gune iraunkorra) lotutako zergaduna bada, eta eredu honen xedeko atxikipenak edo konturako sarrerak benetan jasan baldin baditu, zerga horiei dagokienez. |
| 77-78 | Zenbakizkoa | PROBINTZIAREN KODEA.<br>Oro har, hartzailearen helbide fiskaleko probintziari edo, hala bada, hiri autonomoari dagozkion bi digituak jasoko dira, zerrenda honen arabera: |

| PROBINTZIA | PK |
|---|---|
| ARABA | 01 |
| ALBACETE | 02 |
| ALACANT | 03 |
| ALMERÍA | 04 |
| ASTURIAS | 33 |
| ÁVILA | 05 |
| BADAJOZ | 06 |
| BARTZELONA | 08 |
| BURGOS | 09 |
| CÁCERES | 10 |
| CÁDIZ | 11 |
| KANTABRIA | 39 |
| CASTELLÓ | 12 |
| CEUTA | 51 |
| CIUDAD REAL | 13 |
| KORDOBA | 14 |
| CORUÑA | 15 |
| CUENCA | 16 |
| GIRONA | 17 |
| GRANADA | 18 |
| GUADALAJARA | 19 |

| IDAZGUNEAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIPZIOA | |
|---|---|---|---|
| | | GIPUZKOA | 20 |
| | | HUELVA | 21 |
| | | HUESCA | 22 |
| | | BALEAR UHARTEAK | 07 |
| | | JAÉN | 23 |
| | | LEÓN | 24 |
| | | LLEIDA | 25 |
| | | LUGO | 27 |
| | | MADRIL | 28 |
| | | MÁLAGA | 29 |
| | | MELILLA | 52 |
| | | MURTZIA | 30 |
| | | NAFARROA | 31 |
| | | OURENSE | 32 |
| | | PALENTZIA | 34 |
| | | LAS PALMAS | 35 |
| | | PONTEVEDRA | 36 |
| | | ERRIOXA | 26 |
| | | SALAMANCA | 37 |
| | | SANTA CRUZ TENERIFEKOA (La Palma uhartea izan ezik) | 38 |
| | | SEGOVIA | 40 |
| | | SEVILLA | 41 |
| | | SORIA | 42 |
| | | TARRAGONA | 43 |
| | | TERUEL | 44 |
| | | TOLEDO | 45 |
| | | VALENTZIA | 46 |
| | | VALLADOLID | 47 |
| | | BIZKAIA | 48 |
| | | ZAMORA | 49 |
| | | ZARAGOZA | 50 |
| | | LA PALMA UHARTEA | 53 |
| 79 | Zenbakizkoa | KODEAREN GAKOA.<br>Hartutakoen “A”, “B” edo “D” gakoentzat bakarrik.<br>Eremu honetan jarraian ageri diren zenbakietako edozein jarriko da, “JAULKITZAILEAREN KODEA” eremuaren edukia identifikatzeko.<br>1. Jaulkitzailearen kodea IFZa bati dagokio.<br>2. Jaulkitzailearen kodea ISIN kode bati dagokio.<br>3. Jaulkitzailearen kodea ISIN kodea esleitua ez duten atzerriko balioei dagokie. | |
| 80-91 | Alfanumerikoa | JAULKITZAILEAREN KODEA.<br>Hartutakoen “A”, “B” edo “D” gakoentzat bakarrik.<br>Jaulkitzailea identifikatzeko beteko da eremu hau.<br>Honako hau adieraziko da:<br>1. Oro har, jaulkitzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia adieraziko da (“KODEAREN GAKOA” eremuaren kasua, 79 idazgunea, 1 zenbakidun balioarekin konfiguratua).<br>2. IFZrik ez duten finantza-aktiboen eta higigarrien beste balore batzuen kasuan, ISIN kodea jarriko da, esleitua izanez gero, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren uztailaren 28ko 2/2010 Zirkularraren arabera eratua (zirkular hori finantza balore eta beste finantza tresna kodifikagarri batzuei eta kodifikazio prozedurari buruzkoa da), (“KODEAREN GAKOA” eremuaren kasua, 79 idazgunea, 2 zenbakidun balioarekin konfiguratua).<br>Gainerako kasuetan (IFZrik edo ISIN koderik gabeko finantza-aktiboak eta higigarrien beste balore batzuk), “ZXX” gakoa jarriko da, eta “XX” herrialde jaulkitzailearen kodea izanen da, indarra duen herrialdeen kodifikazioaren arabera (“KODEAREN GAKOA” eremuaren kasua, 79 idazgunea, 3 zenbakidun balioarekin konfiguratua). | |

| IDAZGUNEAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIPZIOA |
|---|---|---|
| 92 | Alfabetikoa | HARTUTAKOAREN GAKOA.<br>Atxikipenaren eta konturako sarreraren mende dauden higigarrien kapitaleko etekinen edo errenten jatorriaren araberako gako alfabetikoa jarriko da, gakoen zerrenda honen arabera:<br>A. Edozein entitateren funts propioetan partaidetza izatearen ondoriozko etekinak edo errentak.<br>B. Norberaren kapitalak, D gakoan adierazitakoez bestelakoak, hirugarrenei lagatzearen ondorioz lortutako etekinak edo errentak.<br>C. Kapital higigarriaren edo errenten bestelako etekinak, “A”, “B” edo “D” gakoetan sartzen ez direnak.<br>D. Entitate lotuetatik datozen norberaren kapitalak hirugarrenei lagatzearen ondorioz lortutako etekin edo errentak, hartzailea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari lotutako zergaduna baldin bada.<br>“D” gakoa erabiltzen denean, kontuan izan beharko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian ezarritakoa, hartzekoak “B” eta “D” gakoen artean banatzearen ondorioetarako. Hala, hartzaileak bere kapitalak laga baditu entitate lotu hartzailearen funts propioetan duen partaidetza hiruz biderkatzearen ondoriozko emaitza baino kopuru handiagoan, hartutakoa honako banaketa honen arabera aitortu beharko da:<br>“B” gakoarekin aitortuko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 29. artikuluan (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia) aurreikusita dauden higigarrien kapitalaren etekinak, lagatako kapitalen zatitik heldu direnak, betiere entitatearen funts propioetan duen partaidetza hiruz biderkatuta ateratzen den emaitza gainditzen ez bada.<br>“D” gakoarekin aitortuko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginean (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia) aurreikusita dauden higigarrien kapitalaren etekinak, lagatako kapitalen zatitik heldu direnak, betiere zergadunak entitatearen funts propioetan duen partaidetza hiruz biderkatuta ateratzen den emaitza gainditzen bada. |
| 93-94 | Zenbakizkoa | IZAERA.<br>“HARTUTAKOAREN GAKOA” eremuan adierazitako gako alfabetikoa zein den, behar den zenbakia adieraziko da, zerrenda honen arabera: |
| | | Hartutakoaren A gakoari loturiko izaera: |
| | | 01. Batzarretara joateagatiko primak. |
| | | 02. Edonolako entitateen dibidenduak eta haien mozkinetan parte hartzea, '”07” eta “08” izaerak bidezkoak ez direnean. |
| | | 03. Mota guztietako aktiboetatik heldu diren etekinak edo errentak, liberatutako akzioen entrega izan ezik, baldin eta, estatutuetan ezarritakoaren arabera edo gizarte organoen erabakiz, ahalmena ematen badute entitate baten mozkinetan, salmentetan, eragiketetan, sarreretan edo antzeko kontzeptuetan parte hartzeko, lan pertsonala ordainsaritzeaz aparteko arrazoiengatik. |
| | | 04. Entitatearen funts propioetako partaidetza ordezkatzen duten balore edo partizipazioen gaineko erabilera edo gozamena izateko eskubideak edo ahalmenak eratzearen edo lagatzearen ondoriozko etekin edo errentak, edozein dela ere izena edo izaera. |
| | | 05. Aurreko zenbakietan ageri ez den beste edozein erabilera, entitate batetik heldu dena hango bazkide, akziodun, elkartekide edo partaide izateagatik. |
| | | 06. Etekin salbuetsiak. |
| | | 07. Inbertsio kolektiboko erakundeek banatutako dibidenduak eta mozkinak. |
| | | 08. Atxikipenik edo konturako sarrerarik ez duten dibidenduak. |
| | | Hartutakoaren B eta D gakoei loturiko izaera: |
| | | 01. Obligazioen, bonuen, gordailu-ziurtagirien edo beste titulu pribatu batzuen interesak. |
| | | 02. Obligazioen, bonuen, zedulen, zor publikoaren edo beste titulu pribatu batzuen interesak. |
| | | 03. Bankuetakoak ez diren maileguen interesak. |
| | | 04. Finantza eragiketetan mozkinen araubide iragankorraz gozatzen duten etekinak edo errentak, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 26/2016 Foru Legearen hogeita laugarren xedapen iragankorraren arabera. |
| | | 05. Finantza entitate batek ordaindutako etekinak edo errentak, haren titulartasunpeko kreditu bat osorik edo hein batean eskualdatzearen, lagatzearen edo transferitzearen ondorioz. |
| | | 06. Kapital higigarriaren beste etekin batzuk edo errentak, aurreko zenbakietan ageri ez direnak. |
| | | 07. Etekin salbuetsiak. |

| IDAZGUNEAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIPZIOA |
|---|---|---|
| | | Hartutakoaren C gakoari loturiko izaera: |
| | | 01. Jabetza intelektualetik heldu diren etekinak edo errentak, hartzailea egilea ez denean. |
| | | 02. Jabetza industrialetik heldu diren etekinak edo errentak, hartzaileak gauzatutako jarduera ekonomikoei lotuta ez daudenean. |
| | | 03. Laguntza teknikoa ematearen ondoriozko etekinak edo errentak, non eta laguntza hori ez den jarduera ekonomiko baten eremuan ematen. |
| | | 04. Ondasun higigarrien, negozioen edo meategien errentamendutik edo azpierrentamendutik heldu diren etekinak edo errentak, jarduera ekonomikoak ez badira. |
| | | 05. Kapitalak ezartzearen ondoriozko biziarteko edo aldi baterako errentak, baldin eta ez badira eskuratu jaraunspenaren, legatuaren edo oinordetzako beste edozein tituluren bidez, eta ez badira kapitalizazio eragiketen edo bizitza nahiz elbarritasun aseguruen kontratuen ondoriozkoak. |
| | | 06. Irudia ustiatzeko eskubidea lagatzearen edo irudia erabiltzeko adostasunaren edo baimenaren ondoriozko etekinak, lagapen hori jarduera ekonomiko baten esparruan egiten ez bada behintzat, betiere pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari lotutako zergadunak badira hartzaileak (erregistroak). |
| | | 07. Jarduera ekonomiko bat ez diren ondasun higiezinen azpierrentamendutik heldu diren etekinak, betiere hartzaileak (erregistroak) pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako zergadunak badira. |
| | | 08. Irudia ustiatzeko eskubidea lagatzearen edo irudia erabiltzeko adostasunaren ondoriozko errentak, nahiz eta ustiapen ekonomikoetatik ateratzen diren sarrerak izan, betiere hartzaileak (erregistroak) sozietateen gaineko zergako subjektu pasiboak badira, edo, bestela, errentak establezimendu iraunkorraren bidez lortzen dituzten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergako zergadunak. |
| | | 09. Jokoetan, lehiaketetan, zozketetan edo ausazko konbinazioetan parte hartzearen ondoriozko sarien bidez lortutako errentak, ondasun, produktu edo zerbitzu batzuen eskaintzari, sustapenari edo salmentari lotuta egon ala ez, betiere hartzaileak (erregistroak) sozietateen gaineko zergako subjektu pasiboak badira, edo, bestela, errentak establezimendu iraunkorraren bidez lortzen dituzten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergako zergadunak. |
| | | 10. Beste sozietate batzuetan administratzaile edo kontseilari kargua izatearen ondorioz lortutako kontraprestazioak, betiere hartzaileak (erregistroak) sozietateen gaineko zergako subjektu pasiboak badira, edo, bestela, errentak establezimendu iraunkorraren bidez lortzen dituzten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergako zergadunak. Hartzaileak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako zergadunak badira, errenta horiek 190 ereduaren bidez aitortu beharko dira. |
| | | 11. Etekin salbuetsiak. |
| | | 12. Kapital higigarriaren beste etekin batzuk edo errentak, gako honetako aurreko zenbakietan sartu ezin direnak, baina zerga oinarri orokorrean sartu beharrekoak direnak. |
| | | 13. Kapital higigarriaren beste etekin batzuk edo errentak, gako honetako aurreko zenbakietan sartu ezin direnak, baina aurrezkiaren zerga oinarrian sartu beharrekoak direnak. |
| | | 14. Kapital higigarriaren beste etekin batzuk edo errentak, gako honetako aurreko zenbakietan sartzen ahal direnak, baldin eta hartzailea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako zergaduna baldin bada. |
| | | 15. Ustiapena lagatzetik eratorritako konturako aurrerakinak, aurrerakin horiek kapital higigarriaren etekintzat hartzen badira eta etekin horiek urte batean baino gehiagotan sortu behar badira. |
| 95 | Zenbakizkoa | ORDAINKETA.<br>Hartutakoen “A”, “B” edo “D” gakoentzat bakarrik.<br>Jarraian adierazten diren zenbakietatik behar dena jarriko da baldin eta aitortzaileak egin duen ordainketa honako kontzeptu hauetako batengatik izan bada: |
| | | 1. Jaulkitzaile gisa |
| | | 2. Estatuko balioaren bitartekari gisa |
| | | 3. Atzerriko balioaren bitartekari gisa |
| | | 4. Atzerriko balioaren bitartekari gisa, atxikitzaile izan gabe |
| | | 5. Bestelako etekin edo errenten bitartekari gisa<br>5. Bestelako etekin edo errenten bitartekari gisa, etekin edo errenta horiek lortzen badira hartutakoaren gakoan “B” letrarekin adierazitako eta “06” izaera duten kapital propioak hirugarrenei lagatzearen ondorioz. |

| IDAZGUNEAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIPZIOA |
|---|---|---|
| 96 | Alfabetikoa | KODE MOTA.<br>Hartutakoen “A”, “B” edo “D” gakoentzat bakarrik.<br>Eremu honetan behean agertzen diren letretako edozein erabiliko da, “BALOREEN KONTUAREN KODEA/MAILEGU ERAGIKETAREN ZENBAKIA” eremuaren edukiaren azalpena identifikatzeko:<br>“C” Balore Kontuaren Kodearen bidezko identifikazioa.<br>“O” Beste identifikazio bat.<br>“P”. Baloreen mailegua. |
| 97-116 | Alfanumerikoa | BALOREAREN KODEA/MAILEGU ERAGIKETAREN ZENBAKIA.<br>Hartutakoen “A”, “B” edo “D” gakoentzat bakarrik.<br>Datu hau jarriko da eredu honen xedeko errentak edo kapital higigarriaren etekinak sortu dituzten baloreen kobrantzaren kudeaketa, administrazioa eta gordailua finantza entitate baten esku daudenean. Hortaz, aitortzailea ez bada kapital higigarriaren etekin edo errenta horiek sortu dituzten baloreen kobrantzaren kudeaketaz, administrazioaz eta gordailuaz arduratzen den finantza entitate bat, eremu hau ez da inolaz ere bete beharko. Eremuaren egitura honelaxe osatzen da:<br>–Entitatearen kodea: lau digitu.<br>–Sukurtsalaren kodea: lau digitu.<br>–Kontrol digituak: bi digitu.<br>–Kontu zenbakia: hamar digitu.<br><br>“KODE MOTA” eremuan (96 idazgunea, 2. motako erregistroan) “P” jarri bada, eremu honetan mailegu eragiketaren zenbakia adieraziko da, baloreen maileguen kasuetan. |
| 117 | Alfanumerikoa | ORDAINTZEKO.<br>Hartutakoen “A”, “B” edo “D” gakoentzat bakarrik.<br>Eremu honetan “X” adieraziko da zerga ekitaldian sortutako hartutakoen kasuan, aitortzaileak haien ordainketak ekitaldi horretan egin ez baditu titularrak kobratzera aurkeztu ez direlako.<br>Eremu honetan “X” jartzen den guztietan, hartzaile beraren gainerako eremuak (erregistroa) honela beteko dira:<br>HARTZAILEAREN IFZa: 999 999 999.<br>ORDEZKARIAREN IFZa: 999 999 999.<br>DEITURAK ETA IZENA, SOZIETATEAREN IZENA EDO IZENDAPENA: Ordaintzeko dauden baloreak.<br>BITARTEKARI BATI EGINDAKO ORDAINKETA: edukirik gabe.<br>PROBINTZIA (KODEA): edukirik gabe.<br>KODEAREN GAKOA: dagokiona.<br>JAULKITZAILEAREN GAKOA: dagokiona.<br>HARTZAILEAREN GAKOA: dagokiona.<br>IZAERA: dagokiona.<br>ORDAINKETA: dagokiona.<br>KODE MOTA: edukirik gabe.<br>BALOREEN KONTUAREN KODEA/MAILEGU ERAGIKETAREN ZENBAKIA: dagokiona.<br>SORTZAPENAREN EKITALDIA: edukirik gabe.<br>HARTZE MOTA: dagokiona.<br>HARTUTAKOAREN ZENBATEKOA/MAILEGU-EMAILEAREN ORDAINSARIA: dagokiona.<br>MURRIZKETEN ZENBATEKOA: dagokiona.<br>ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA: dagokiona.<br>ATXIKIPENA (%): dagokiona.<br>ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK: dagozkionak.<br>MAILEGUAREN HASIERAKO EGUNA: dagozkionak.<br>MAILEGUAREN MUGAEGUNA: dagozkionak.<br>KONPENTSAZIOAK: dagozkionak.<br>BERMEAK: dagozkionak.<br>Hartzaileari buruzko datuen informazioa ordaintzeko dauden etekinak edo errentak hartzaileari ordaintzen zaizkion zerga ekitaldi bereko aitorpenean sartuko da.<br>Horrelakoetan, etekinak edo errentak ordaintzen diren ekitaldiko aitorpenean, “SORTZAPENAREN EKITALDIA” eremuan etekin edo errenta horiek sortu ziren ekitaldiko lau zifrak adieraziko dira, nahiz eta ordaintzeko egon titularrak kobratzera aurkeztu ez zirelako. |
| 118-121 | Zenbakizkoa | SORTZAPENAREN ZERGA-EKITALDIA.<br>Hartutakoen “A”, “B” edo “D” gakoentzat bakarrik.<br>Aitorpen honi dagokion ekitaldian ordaindutako etekin edo errenten sortzapenaren ekitaldiko lau zifrak adieraziko dira, sortzapena aurreko ekitaldietakoa izan arren, titularrak ekitaldi honetan kobratzera aurkeztu badira. Kasu horretan ez bada, eremu hau ez da inola ere beteko. |
| 122 | Zenbakizkoa | HARTZE MOTA. Hartze mota honako gako hauen arabera adieraziko da:<br>1 Diruzkoa.<br>2 Gauzazkoa. |

| IDAZGUNEAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIPZIOA |
|---|---|---|
| 123-135 | Zenbakizkoa | HARTUTAKO ZENBATEKOA/MAILEGU-EMAILEARENTZAKO ORDAINKETA.<br>Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa.<br>Diruzko ordainketak badira, hartzaile bakoitzari ordaindutako edo hari eskatzen ahal zaion kontraprestazio osoaren zenbatekoa adieraziko da, ikur eta koma dezimalik gabe.<br>Gauzazko ordainketak badira, gauzazko ordainketen balorazioa adieraziko da, zeinurik eta koma dezimalik gabe. Hartzailea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari lotutako zergaduna baldin bada, balorazio hori ateratzeko merkatuko balorea hartuko da gehi egindako konturako sarrera, errentaren hartzaileari egotzi ez bazaio.<br><br>Kapital higigarriaren errentak edo etekinak sortu dituen ondare-elementu, ondasun edo eskubide batek titular bat baino gehiago badu, bakoitzaren partaidetzaren arabera bakoitzari egozten ahal zaion ordainketa eta, hala badagokio, konturako sarrera adierazi beharko da.<br>Eremu hau bitan banatzen da:<br>123-133 — Hartutakoaren edo mailegu-emailearen ordainsariaren zenbatekoak duen osoko zatia.<br>134-135 — Hartutakoaren edo mailegu-emailearen ordainsariaren zenbatekoak duen zati dezimala. |
| 136-138 | ------------- | ZURIUNEAK |
| 139-151 | Zenbakizkoa | MURRIZKETEN ZENBATEKOA.<br>Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa.<br>Ikurrik eta dezimalik gabe jarriko da murrizketen zenbatekoa, hau da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 32.2 artikuluan (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua) ageri direnena, betiere hartzailea zerga horri lotutako zergaduna bada.<br>Eremu honetan ez da inolako zenbatekorik idatzi behar, baldin errenten hartzailea bada sozietateen gaineko zergari lotutako subjektu pasiboa edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari lotutako zergaduna (establezimendu iraunkorrak).<br>Eremu hau bitan banatzen da:<br>139-149 — Osoko zatia: murrizketen zenbatekoarena.<br>150-151 — Zati dezimala: murrizketen zenbatekoarena. |
| 152-164 | Zenbakizkoa | ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA.<br>Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa.<br>Egindako ordainketengatik egindako atxikipenen eta konturako sarreren oinarriaren zenbatekoa adieraziko da, ikurrik eta koma dezimalik gabe. Oro har, ordaindutako edo eskatzen ahal den kontraprestazio osoa adierazi beharko da.<br>Hartzailea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari lotutako zergaduna bada, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan jasotako espezialitateak (76., 83. eta 84. artikuluak) kontuan hartuko dira. Gauzazko ordainketen kasuan, “Hartze mota” (122 idazgunea 2. motako erregistroan) eremuan “2” adierazi baldin bada, kontura egindako sarreraren oinarria adieraziko da, ikurrik eta koma dezimalik gabe.<br>Dena dela, baloreak maileguan emateko eragiketen kasuan, hau da, “Kode mota” eremuan (96 idazgunea 2. motako erregistroan) “P” adierazi bada, eremu honetan adierazi beharrekoa eragiketa honen emaitza izanen da: “Hartutakoaren zenbatekoa/Mailegu-emailearentzako ordainketa” eremuan adierazitako zenbatekoa (123-135 idazguneak 2. motako erregistroan) gehi atxikipena egin beharra duten konpentsazioen zenbatekoa, hots, “Konpentsazioak” eremuan adierazi dena (225-236 idazguneak 2. motako erregistroan).<br>Eremu hau bitan banatzen da:<br>152-162 — Atxikipenen eta konturako sarreren oinarriaren zenbatekoaren osoko zatia; halakorik ez badu, zeroz beteko da.<br>163-164 — Atxikipenen eta konturako sarreren oinarriaren zenbatekoaren zati dezimala; halakorik ez badu, zeroz beteko da. |
| 165-168 | Zenbakizkoa | ATXIKIPENAREN %.<br>Kasu bakoitzean aplikatutako atxikipenaren edo konturako sarreraren portzentajea adieraziko da; oro har, 100eko 19 izanen da, “HARTUTAKOAREN GAKOA” eremuan B letra eta “IZAERA” eremuan 04 zenbakia adierazten denean izan ezik, halakoetan egiazki aplikatu den atxikipen portzentajea jarriko baita (portzentaje hori osoko zenbaki bat ez bada, bi dezimalekin adieraziko da). Gainera, “HARTUTAKOAREN GAKOA” eremuan C letra eta “IZAERA” eremuan 06 zenbakia edo 08 zenbakia adierazten denean, portzentajea 100eko 20 izanen da. Azkenik, “HARTUTAKOAREN GAKOA” eremuan C letra adierazi bada eta “IZAERA” eremuan 01 zenbakia, adierazi beharreko portzentajea 100eko 15 izanen da. “HARTUTAKOAREN GAKOA” eremuan C letra adierazi bada eta “IZAERA” eremuan 15 zenbakia, ordea, adierazi beharreko portzentajea 100eko 7 izanen da. |

<table>
<tr><th>IDAZGUNEAK</th><th>IZAERA</th><th colspan="2">EREMUEN DESKRIPZIOA</th></tr>
<tr><td rowspan="3"></td><td rowspan="3"></td><td colspan="2">Urtean zehar ehuneko bat baino gehiago aplikatu bada, haietako azkena baizik ez da aipatuko.<br>Eremu hau bitan banatzen da:</td></tr>
<tr><td>165-166</td><td>OSOA. Zenbakizkoa. Osoko zatia: Portzentajearen osoko zatia idatziko da (ez badu, ZEROAK idatzi).</td></tr>
<tr><td>167-168</td><td>DEZIMALA Zenbakizkoa. Zati dezimala: Portzentajearen zati dezimala idatziko da (ez badu, ZEROAK idatzi).</td></tr>
<tr><td rowspan="4">169-181</td><td rowspan="4">Zenbakizkoa</td><td colspan="2">ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK.<br>Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa.<br>“ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA” eremuan adierazitako zenbatekoari “ATXIKIPENAREN %” eremuan atxikipenak edo konturako sarrerak egiteko adierazi den portzentajea aplikatzearen ondoriozko emaitza adieraziko da. Dena dela, urteko laburpenean ageri den urtean atxikipenen eta konturako sarreren zenbait portzentaje izanez gero aplikatzekoak, hartzailearen atxikipenen eta konturako sarreren oinarriari dagokion atxikipenen eta konturako sarreren zenbateko osoa adierazi beharko da eremu honetan une bakoitzean, indarra duen araudiari jarraikiz.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Eremu hau bitan banatzen da:</td></tr>
<tr><td>169-179</td><td>Osoko zatia: atxikipenena eta konturako sarrerena.</td></tr>
<tr><td>180-181</td><td>Zati dezimala: atxikipenena eta konturako sarrerena.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">182-192</td><td rowspan="3">Zenbakizkoa</td><td colspan="2">PENALIZAZIOAK.<br>“HARTUTAKOAREN GAKOA” eremuan (2. motako erregistroaren 92 idazgunea) B edo D gakoa adierazten denean, ikurrik eta koma dezimalik gabe jarriko da merkataritza-sustapenak ez betetzetik datozen kapital higigarriaren etekin negatiboen zenbatekoa, salbu eta mota guztietako finantza-erakundeetako kontuetatik datozenak.<br>Eremu hau bitan banatzen da:</td></tr>
<tr><td>182-190</td><td>Penalizazioen zati osoa</td></tr>
<tr><td>191-192</td><td>Penalizazioen zati dezimala</td></tr>
<tr><td>193-207</td><td>------------</td><td colspan="2">ZURIUNEAK</td></tr>
<tr><td>208</td><td>Alfabetikoa</td><td colspan="2">AITORTZAILEAREN IZAERA.<br>“S” jarriko da aitortzailea kategoria hauetako bakar batean ere sartuta ez dagoenean:<br>a) Espainian helbidea, egoitza edo ordezkaritza duen entitatetzat jotzen den aitortzailea, eredu honen xede den atxikipenari lotutako errentak besteren kontura ordaintzen baditu edo eredu honen xedeko kapital higigarriaren etekinak eta errentak sortzen dituzten baloreetako errenten kobrantzaren kudeatzailea edo gordailuzaina baldin bada.<br>b) Eredu honen xedeko kapital higigarriren etekinen eta errenten sorrarazle diren baloreen jaulkitzailetzat jotzen den aitortzailea, baldin eta errenta horiek besteren kontura ordaintzen badira edo titularren baloreen gordailua egina badute edo aurreko a) letran aipatutako entitateek errenten kobrantza kudeatzen badute.<br>c) Eredu honen xedeko kapital higigarriaren etekinak edo errentak ordaindu dituen aitortzailea, baldin eta likidazio maiztasuna hamabi hilabetetik gorakoa izateagatik 1999a baino lehenagoko ekitaldietan konturako sarrerak egin badira, eta urteko laburpenari dagokion ekitaldian behin betiko atxikipena eta erregularizazioa egin badira, abenduaren 30eko 371/1998 Foru Dekretuko xedapen iragankorraren 6. atalarekin bat.<br>d) Administrazio gastuen eta balore negoziagarrien gordailuaren kontzeptu gisa (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiaren, 32.1.a) artikuluan aipatua) kopuruak hartu dituen aitortzailea eta, beraz, eredu honetan gastu horien zerrendari buruz ageri den orri erantsia bete behar duena.<br>Aitortzailea aipatu diren kategoria horietako batean sartuta badago, eremu hori zuri utziko da.<br>Eremu honetan “S” adierazten bada, jarraian aipatzen diren eremuak honela beteko dira:<br>–BITARTEKARI BATI EGINDAKO ORDAINKETA (76 idazgunea): zuriunez beteko da.<br>–KODEAREN GAKOA (79 idazgunea): zeroz beteko da.<br>–JAULKITZAILEAREN KODEA (80-91 idazguneak): zuriunez beteko da.<br>–ORDAINKETA (95 idazgunea): zeroz beteko da.<br>–KODE MOTA (96 idazgunea): zuriunez beteko da.<br>–BALOREEN KONTUAREN KODEA/MAILEGU ERAGIKETAREN ZK. (97-116 idazguneak): zuriunez beteko da.<br>–GASTUEN ZENBATEKOA (195-207 idazguneak): zeroz beteko da.<br>–MAILEGUAREN HASIERAKO EGUNA (209-216 idazguneak): zeroz beteko da.<br>–MAILEGUAREN MUGAEGUNA (217-224 idazguneak): zeroz beteko da.<br>–KONPENTSAZIOAK (225-236 idazguneak): zeroz beteko da.<br>–BERMEAK (237-248 idazguneak): zeroz beteko da.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><th>IDAZGUNEAK</th><th>IZAERA</th><th colspan="3">EREMUEN DESKRIPZIOA</th></tr>
<tr><td>209-216</td><td>Zenbakizkoa</td><td colspan="3">MAILEGUAREN HASIERAKO EGUNA.<br>Baloreak mailegatzen direnean bakarrik, hau da, “KODE MOTA” eremuan (96 idazgunea, 2. motako erregistroan) “P” adierazi denean, eremu honetan maileguaren mugaeguna adieraziko da, urteari dagozkion lau digituak, hilabeteko bi digituak (01etik 12ra) eta egunari dagozkion bi digituak (01etik 31ra) emanez, UUUUHHEE formatuan.<br>Gainerako kasuetan, eremu hau hutsik utziko da.</td></tr>
<tr><td>217-224</td><td>Zenbakizkoa</td><td colspan="3">MAILEGUAREN MUGAEGUNA.<br>Baloreak mailegatzen direnean bakarrik, hau da, “KODE MOTA” eremuan (96 idazgunea, 2. motako erregistroan) “P” adierazi denean, eremu honetan maileguaren hasierako eguna adieraziko da, urteari dagozkion lau digituak, hilabeteko bi digituak (01etik 12ra) eta egunari dagozkion bi digituak (01etik 31ra) emanez, UUUUHHEE formatuan.<br>Gainerako kasuetan, eremu hau hutsik utziko da.</td></tr>
<tr><td rowspan="5">225-236</td><td rowspan="5">Zenbakizkoa</td><td colspan="3">KONPENTSAZIOAK.<br>Zenbakizko eremua, 12 idazgunekoa.<br>Baloreak mailegatzen direnean bakarrik, hau da, “KODE MOTA” eremuan (96 idazgunea, 2. motako erregistroan) “P” adierazi denean eta mailegu-emailearen ordainsaria atxikipenetik eta konturako sarreratik salbuetsia ez dagoenean, eremu honetan dagozkion konpentsazioen zenbatekoa adieraziko da, atxikipena eta konturako sarrera egin behar den kontuan hartu gabe.</td></tr>
<tr><td colspan="3">Eremu hau bitan banatzen da:</td></tr>
<tr><td>225-234</td><td colspan="2">Konpentsazioen zenbatekoaren osoko zatia.</td></tr>
<tr><td>235-236</td><td colspan="2">Konpentsazioen zenbatekoaren zati dezimala.</td></tr>
<tr><td colspan="3">Gainerako kasuetan, eremu hau hutsik utziko da.</td></tr>
<tr><td rowspan="4">237-248</td><td rowspan="4">Zenbakizkoa</td><td colspan="3">BERMEAK.<br>Zenbakizko eremua, 12 idazgunekoa.<br>Baloreak mailegatzen direnean bakarrik, hau da, “KODE MOTA” eremuan (96 idazgunea, 2. motako erregistroan) “P” adierazi denean, eremu honetan dagozkion bermeen zenbatekoa adieraziko da.<br>Eremu hau bitan banatzen da:</td></tr>
<tr><td>237-246</td><td colspan="2">Bermeen zenbatekoaren osoko zatia.</td></tr>
<tr><td>247-248</td><td colspan="2">Bermeen zenbatekoaren zati dezimala.</td></tr>
<tr><td colspan="3">Gainerako kasuetan, eremu hau hutsik utziko da.</td></tr>
<tr><td rowspan="4">249-313</td><td rowspan="4">Zenbakizkoa</td><td colspan="3">ESTATUAN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FORU ALDUNDIETAN ETA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN EGINDAKO ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK.<br>Eremu hau bete beharko da, bakar-bakarrik, baldin eta kapital higigarriaren etekinak edo atxikipenari eta konturako sarrerari lotutako errenten etekinak A, B edo D gisa adierazi badira “Hartutakoaren gakoa” eremuan (2. motako erregistroko 92 idazgunea).<br>Kapital higigarriaren etekin horien kasuan edo atxikipenari eta konturako sarrerari lotutako errenten etekin horien kasuan, erakunde ordaintzaileak, etekin horien gainean egindako guztizko atxikipenen eta konturako sarrera guztien zenbatekoak adierazteaz gain “Atxikipenak eta konturako sarrerak” eremuan (2. motako erregistroko 169-181 idazguneak), honako azpieremu hauek ere beteko ditu, administrazio eskudun bakoitzari sartutako konturako sarrerak eta atxikipenak bereizita identifikatzeko:</td></tr>
<tr><td rowspan="3">249-261</td><td colspan="2">ESTATUKO OGASUNA.<br>Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa.<br>Adieraziko da; ikurrik eta koma dezimalik gabe, honako arau hauetan aipatzen diren etekinei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreren urteko zenbatekoa (Estatuko Ogasun Publikoan benetan sartu direnak): Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Legearen 12.1 artikuluaren bigarren paragrafoan, eta Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 9. artikuluko Bat.Lehena ataleko a) letraren bigarren paragrafoan.<br>Erakunde ordaintzaileak Estatuko Ogasunari soilik ordaintzen dizkionean zergak, azpieremu hau baino ez da beteko, eta bertan adieraziko da “Atxikipenak eta konturako sarrerak” eremuaren zenbateko bera (2. motako erregistroko 169-181 idazguneak), etekin hauei dagokiena: kapital higigarriaren etekinak edo atxikipenari eta konturako sarrerari lotutako errenten etekinak, “Hartze gakoan” (2. motako erregistroa, 92 idazgunea) A, B edo D letrekin adierazitakoak, hartzaile hori ordaindu zaizkionak.<br>Zenbatekoak eurotan adieraziko dira. Eremu hau bitan banatzen da:</td></tr>
<tr><td>249-259</td><td>Egindako atxikipen eta konturako sarreren zenbatekoaren osoko zenbakien zatia (halakorik ez badu, zeroz beteko da).</td></tr>
<tr><td>260-261</td><td>Egindako atxikipen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati dezimala (halakorik ez badu, zeroz beteko da).</td></tr>
</table>

| IDAZGUNEAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIPZIOA | | |
|---|---|---|---|---|
| | | 262-274 | NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA.<br>Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa.<br>Ikurrik eta koma dezimalik gabe adieraziko da benetan Nafarroako Foru Komunitatean egin diren atxikipenen eta konturako sarreren urteko zenbatekoa, etekin hauei dagokienez: Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Legearen 12.1 artikuluaren bigarren paragrafoan aipatzen diren etekinak. Bestela, eremu hau zeroz beteko da. Zenbatekoak eurotan adieraziko dira. Eremu hau bitan banatzen da: | |
| | | | 262-272 | Egindako atxikipen eta konturako sarreren zenbatekoaren osoko zatia (halakorik ez badu, zeroz beteko da). |
| | | | 273-274 | Egindako atxikipen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati dezimala (halakorik ez badu, zeroz beteko da). |
| | | 275-287 | ARABAKO FORU ALDUNDIA.<br>Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa.<br>Ikurrik eta koma dezimalik gabe adieraziko da benetan Arabako Foru Aldundian egin diren atxikipenen eta konturako sarreren urteko zenbatekoa, etekin hauei dagokienez: Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 9. artikuluko Bat.Lehena ataleko a) letraren bigarren paragrafoan aipatzen diren etekinak. | |
| | | | Bestela, eremu hau zeroz beteko da.<br>Zenbatekoak eurotan adieraziko dira. Eremu hau bitan banatzen da: | |
| | | | 275-285 | Egindako atxikipen eta konturako sarreren zenbatekoaren osoko zatia (halakorik ez badu, zeroz beteko da). |
| | | | 286-287 | Egindako atxikipen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati dezimala (halakorik ez badu, zeroz beteko da). |
| | | 288-300 | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa.<br>Ikurrik eta koma dezimalik gabe adieraziko da benetan Gipuzkoako Foru Aldundian egin diren atxikipenen eta konturako sarreren urteko zenbatekoa, etekin hauei dagokienez: Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 9. artikuluko Bat.Lehena ataleko a) letraren bigarren paragrafoan aipatzen diren etekinak.<br>Bestela, eremu hau zeroz beteko da.<br>Zenbatekoak eurotan adieraziko dira. Eremu hau bitan banatzen da: | |
| | | | 288-298 | Egindako atxikipen eta konturako sarreren zenbatekoaren osoko zatia (halakorik ez badu, zeroz beteko da). |
| | | | 299-300 | Egindako atxikipen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati dezimala (halakorik ez badu, zeroz beteko da). |
| | | 301-313 | BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa.<br>Ikurrik eta koma dezimalik gabe adieraziko da benetan Bizkaiko Foru Aldundian egin diren atxikipenen eta konturako sarreren urteko zenbatekoa, etekin hauei dagokienez: Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 9. artikuluko Bat.Lehena ataleko a) letraren bigarren paragrafoan aipatzen diren etekinak.<br>Bestela, eremu hau zeroz beteko da.<br>Zenbatekoak eurotan adieraziko dira. Eremu hau bitan banatzen da: | |
| | | | 301-311 | Egindako atxikipen eta konturako sarreren zenbatekoaren osoko zatia (halakorik ez badu, zeroz beteko da). |
| | | | 312-313 | Egindako atxikipen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati dezimala (halakorik ez badu, zeroz beteko da). |
| 314 | Zenbakizkoa | ZEROZ BETE | | |
| 315-321 | Alfanumerikoa | HURRENKERA ZENBAKIA.<br>Hartzailearen erregistroetako bakoitza identifikatzen du.<br>Hartzailearen erregistro bakoitzari hurrenkera zenbaki bat esleituko zaio modu sekuentzialean. | | |
| 322-330 | Alfanumerikoa | AURREKO ORDAINTZAILEAREN IFZa.<br>Hartutakoen “A”, “B” edo “D” gakoentzat bakarrik. | | |
| | | Ordainketa-katean aurre-aurrekoa den ordaintzailearen IFZa adierazi beharko da, baldin eta “ORDAINKETA” eremuak, 95 idazgunean, 2 balioa badu “Estatuko balorearen bitartekari gisa”, 3 balioa badu “Atzerriko balioaren bitartekari gisa”, 4 balioa badu “Atzerriko balioaren bitartekari gisa”, edo 5 balioa badu “Bestelako etekin edo errenten bitartekari gisa”, hirugarrenei kapital propioak lagatzeagatik lortua, eta kapital horiek “B” gisa adierazi badira hartutakoaren gakoan eta “0” izaera badute, salbu eta aurre-aurreko ordaintzailea atzerrian kokatutako entitate bat baldin bada eta ez badu Espainiako IFZrik. | | |

| IDAZGUNEAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIPZIOA |
|---|---|---|
| 331-338 | Zenbakizkoa | SORTZAPEN DATA.<br>Hartutakoaren gakoa eremuan "A" adierazi dutenei bakarrik.<br>Errenta sortu den data jasoko da, bereziki dibidenduak banatzeko akordioan ezarritako ordainketa-data.<br>Azpiatal hauek ditu:<br>331-332 EGUNA. Zenbakizkoa. Bi idazgune.<br>333-334 HILABETEA. Zenbakizkoa. Bi idazgune.<br>335-338 URTEA. Zenbakizkoa. Lau idazgune. |
| 339 | Alfabetikoa | MERKATU GAKOA.<br>Hartutakoaren gakoan "A", "B" edo "D" adierazi denean bakarrik.<br>Dagokion gako alfabetikoa jasoko da, kapital higigarriaren etekinen edo atxikipenari eta konturako sarrerari lotutako errenten jatorri diren baloreak edo akzioak negoziatzen diren merkatuaren arabera, honako gako hauen arabera:<br>A. Espainiako baloreen bigarren mailako merkatu ofiziala.<br>B. EBko atzerriko baloreen bigarren mailako merkatu ofiziala.<br>C. Atzerriko beste merkatu ofizial batzuk.<br>D. Beste batzuk. |
| 340-500 | ------------ | ZURIUNEAK |

–Zenbateko guztiak positiboak izanen dira.

–Edukirik ez duten zenbakizko eremuak zeroz beteko dira.

–Edukirik ez duten eremu alfanumerikoak eta eremu alfabetikoak zuriunez beteko dira.

–Zenbakizko eremu guztiak eskuinaldera lerrokaturik eta ezkerraldean zeroz beterik.

–Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldera lerrokaturik eta eskuinaldean zuriuneak dituztela, letra larriz, karaktere berezirik eta azentudun bokalik gabe, non eta eremuaren azalpenean besterik agintzen ez den.

## D.–2. MOTAKO ERREGISTROA

### *Hartzailearen erregistroa*

Gastuen zerrendaren diseinua, eranskinekoa. 4/2008 Foru Dekretuak onetsitako PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 32.1.a) artikulua.

| IDAZGUNEAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIPZIOA |
|---|---|---|
| 1 | Zenbakizkoa | ERREGISTRO MOTA. Konstantea: '2'. |
| 2-4 | Alfanumerikoa | AITORPEN EREDUA. Konstantea: '193'. |
| 5-8 | Zenbakizkoa | EKITALDIA. 1. motako erregistroak idazgune hauexetan duen eduki berbera idatzi. |
| 9-17 | Alfanumerikoa | AITORTZAILEAREN IFZ-A. 1. motako erregistroak idazgune hauexetan duen eduki berbera idatzi. |
| 18-26 | Alfanumerikoa | ZERGADUNAREN IFZa. Pertsona fisikoa bada, hartzailearen IFZa jarriko da, Tributuak kudeatu eta ikuskatzeko eta tributuak aplikatzeko prozeduretarako arau komunak garatzeko jarduketa eta prozedurei buruzko Erregelamendu Orokorra onesten duen uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuan eta Identifikazio fiskaleko zenbakia eta hari lotutako zenbait zentsu arautzen dituen otsailaren 22ko 8/2010 Foru Dekretuan ezartzen diren arauei jarraituz Hartzailea pertsona juridikoa bada edo errentak eratxikitzeko araubidea duen entitate bat bada (ondasun-erkidegoa, sozietate zibila, jaraunspen jasogabea, etab.), haren identifikazio fiskaleko zenbakia adieraziko da. Adingabe edo ezgaituen identifikazioan azalduko dira bai adingabearen edo ezgaituaren datuak, identifikazio fiskaleko zenbakia barne, bai legezko ordezkariaren datuak. Eremu hau eskuinaldera lerrokaturik egonen da, eta azken idazgunea kontrol karakterea izanen da. Ezkerraldeko idazguneak zeroz beteko dira. |
| 27-35 | Alfanumerikoa | LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZa. Hartzailea adingabea bada, eremu honetan haren legezko ordezkariaren identifikazio fiskaleko zenbakia (aita, ama edo tutorearena) adieraziko da.<br>Beste edozein kasutan zuriuneak utziko dira eremu honen edukian. Eremu hau eskuinaldera lerrokaturik egonen da, eta azken idazgunea kontrol karakterea izanen da. Ezkerraldeko idazguneak zeroz beteko dira. |

<table>
<tr><th>IDAZGUNEAK</th><th>IZAERA</th><th colspan="2">EREMUEN DESKRIPZIOA</th></tr>
<tr><td>36-75</td><td>Alfabetikoa</td><td colspan="2">ZERGADUNAREN DEITURAK ETA IZENA, EDO IZENDAPENA.<br>a) Pertsona fisikoa bada, aurrena lehen abizena, tarte bat, bigarren abizena, tarte bat eta izen osoa idatziko dira, hurrenkera horretantxe. Hartzailea adingabea bada, haren deiturak eta izena jasoko dira eremu honetan.<br>b) Errenta egozpenaren araubidea duten entitateen kasuan, entitatearen izena osorik jarriko da, anagramarik gabe.</td></tr>
<tr><td>76-194</td><td></td><td colspan="2">ZURIUNEAK</td></tr>
<tr><td rowspan="3">195-207</td><td rowspan="3">Zenbakizkoa</td><td colspan="2">GASTUEN ZENBATEKOA.<br>Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa. Ikurrik eta dezimalik gabe jarriko da gastuen zenbatekoa, hau da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 32.1.a) artikuluan (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua) ageri direnena.<br>Eremu hau bitan banatzen da:</td></tr>
<tr><td>195-205</td><td>Osoko zatia: gastuen zenbatekoarena.</td></tr>
<tr><td>206-207</td><td>Zati dezimala: gastuen zenbatekoarena.</td></tr>
<tr><td>208-500</td><td>----------------</td><td colspan="2">ZURIUNEAK.</td></tr>
</table>

–Zenbateko guztiak positiboak izanen dira.

–Edukirik ez duten zenbakizko eremuak zeroz beteko dira.

–Edukirik ez duten eremu alfanumerikoak eta eremu alfabetikoak zuriunez beteko dira.

–Zenbakizko eremu guztiak eskuinaldera lerrokaturik eta ezkerraldean zeroz beterik.

–Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldera lerrokaturik eta eskuinaldean zuriuneak dituztela, letra larriz, karaktere berezirik eta azentudun bokalik gabe, non eta eremuaren azalpenean besterik agintzen ez den.